

JESUS ETA ERLIJIONEA (eta GU)

Azken aste hautan eskupera jin zauzkitan hainbat artikulu edo komentarioek berriz ere gai huntaz gogoetak egitera eramaiten nau: Jesus eta Erlijionea.

Alabainan, huna azken bi igande hautako ebanjelio komentarioetan Jose Antonio Pagolak luzatzen dauzkigun galderak eta oharrak:

- «*Krisialdi erlijiosoaz*» mintzo gira gu, «*deskristautzeaz*», «*jarduera erlijiosoa uzteaz*»... *Ez ote da gertatzen Jainkoa beste bide bat prestatzen ari dela, Jainkoaren erreinuaren egitasmoari leialagoa izango den beste Eliza bat sortuko duena ? Ez ote da beharrekoa krisialdi hau, hain boteretsua ez den baina ebanjelikoagoa izango den beste Eliza bat sortzeko, hain ugaria ez baina mundua gizakoiago bihurtzeari emanagoa izango den beste Eliza bat sortzeko ? Ez ote dira etorriko Jainkoari leialago izango diren beste belaunaldi berri batzuk ?*»

- *"Frantses Aita Saindua kezkatu dabil prediku-mota huntaz: «errepikatzearen errepikatzeaz eta indarrez ezarri nahi den eta loturarik gabeko irakaspen-sail bat transmititu nahi duenaz». Irriskurik handiena, Aita Sainduarentzat, huntan datza: «mezutzen dena ez dela Ebanjelioa bera, baizik eta erakaspen edo moral baten pondu markatu batzuk, hautu ideologiko jakin batzuetarik hartuak. Horrela, mezuak bere freskotasuna galtzeko irriskua izango du eta Ebanjelio-usaina galduko».*

Badakigu Jesusek tira-bira ainitz izan zuela bere denborako Apez Nagusi eta Lege Gizonekin. Baina ez zuen Judaismoa ukatu edo arbuiatu: egin zuena da Legeak zeukan alderdi etikoena eta teologikoena (hau da samurtasuna, urrikaltasuna, askapen deia) errotu, eta kultu arauak erlatibizatu. "Tenploa"rekin ere arazoak izan zituen: ez zuen hau printzipioz kondenatzen, baina haren alderdi jasanezinezkoak salatzen zituen.

Bestalde, Jesus ez zen presuna "sagaratua" izan. Ez zen ez apeza ez Tenploko funtzionarioa izan, ez zuen erlijioneari loturiko kargurik izan, ez zen Lege erakaslea izan. Jesus laikoa izan zen. Ez zuen niholako erlijionerik sortu edo eraiki. Edozoin karguri ihes egin zion, eta bereziki presuna baztertu edo zokoratuetaz arduratu zen. Zapalkuntzak eta injustiziak salatu zituen, eta emazteek toki garrantzizkoa izan zuten Jesusen bizian eta bizimoldean.

Eta ondotik zer gertatu da ?

Historiara joaz eta laburbideak hartuz, erran ginezake gaurko eliz egitura edo erakundea IV. mendeaz geroztik datorkigun eredu imperialistaren umea da: Konstantino emperadorearen garaian Milango Aginduak (313) ofizializatu eta "funtzionarizatu" zuen Eliza. Ondotik, Emperadoreak deitu Kontzilioek (Nizea, Konstantinopla, Efeso, Kaltzedonia) bideratu zituzten kristau erlijionearen oinarriko ardatzak, Nazareteko Jesusen mezuaren ganik urrunduz. Erlijione berriak egitura piramidala hartu zuen: Aita Sainduak, Patriarkek, Apezpikuek, Apezek ("gizonezkoak") dute erlijione berria kudeatzen, emaztea guziz baztertua gelditzen delarik aginte eta botere guneetarik. Zuzenbide Kanonikoak gisa hortako egitura ontzat hartu zuen kristau erlijionea gobernatzeko. Orduan Eliza ofizialaren ardura izan da Kontzilioek historian bideratu fedea zaintzea eta mundu osoan hedatzea, dogmetan oinarritu teologia bat bultzatuz.

Jesusek kontra-jartzen zituen boterea eta **zerbitzua**, eta erlijioneari kontra-jartzen zion **dohaintasuna**. Zerbitzua eta dohaintasuna dira Jesusen mezuaren funtsezko ardatzak. Hain xuxen agintaritzak gogoko ez dituen bi ezaugarri. Agintaritzak, boterea atxikitzeaz axolatua da. Hortarako, itxura ospetsuz jantziko da, arauri obeditzea eta jarraitzea eskatuz. Gisa hortan, kontrarioa erranik ere, praktikan mezua iraultzen du: "subjektuek" konprenitzen dute automatikoki mendekotasunean eta mereximenduan dagola aterabidea. Ele "erlijiosoa" erabiltzen segituko du Agintaritzak, Jainkoa eta Jesus izendatzen segituko du, baina, egiaz, jatorrizko mezua desaktibaturik gertatzen da.

Orduan guk, gaur, gauden tokian eta egoeran, zer egin ?

Berriz ere J.A. Pagolari hartzen diot erantzuna eta azken hitza: *"Sekula ez bezalako aldaketa sozio-kulturalak gertatzen ari diren aldi huntan, sekula ez bezalako konbertsio-beharrean da Eliza, Jesu Kristoren ganako fede berri bat eragiteko. Segur aski, konbertsio hau, neurri handian, elkarte ttipiak sortzearen eta garatzearen baitan egongo da; hau da, Jesusek bere lehen jarraitzaile-*

taldearekin bizi izan zuen «esperientzia fundatzaile hura» gaur egun eguneratzera ausartuko diren elkarateak sortzearen eta garatzearen baitan."

***Peio Ospital
2014-10-15***